



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko azaroaren 8ko bilerako ondorio nagusien sintesia:

- **Honako puntuen berri eman da:** Emisio fokuen inbentarioa; Ekoeraginkortasun Programaren diru-laguntza; Planen berrikustea; teknikoaren hautaketa prozesua; Lanbideko Enplegu Berdea programa; Udalsarea 21 saria.
- **Jasangarritasun irizpideen araberako eskualdeko erosketa eta kontratazio zerbitzuari dagokion lehiaketa:** Bideragarritasun azterketaren pleguak ontzat eman dira eta lehiaketa argitara ematen da.
- **Hondakinak Prebenitzeko Aste Europarra:** antolatutako lau ekintzen berri eman da: 1) Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko hondakinen behatokia, 2) Etxe Berdeak programaren bigarren edizioa (kontsumo arduratsu eta hondakinen prebentzioaren ingurukoa), 3) Etxeetako landare-olio erabilia biltzeko sentsibilizazio kanpaina eskoletan, 4) Koopera Reusing Center hondakin kudeaketarako instalaziora bisita.
- **Oloia biltzeko zerbitzuaren kontratua berriztea:** honakoa adostu da: 1) zerbitzua bi urtetarako berriztea. 2) “kontenedore kopuru bera mantentzea, 3.517 euroko beherapenarekin” aukeratzea.
- **2013ko kudeaketa plana:** 2013ko kudeaketa planaren zirriborro gainean gai klabeak aipatzen dira zehazteko. 2012ko irizpide bera mantentzea adosten da, hau da, “Udalkutxa 2012 Konturako ematea” taulan oinarrituko da udalen urteko kuotaren kalkulua.
- **Jasotako gonbidapen eta eskaintzak:** Car sharing delakoaren aurkezpena; Consultoría Lumínica enpresak emandako saioa “argiteria publikoan nola aurreztu”; Sagarrak emandako Kontsumoari buruzko tailerra “zentzuz kontsumitzeko tresnak”.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** abenduaren 13an, 9:00etatik 11:00etara.